


2004. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan %1,9 pertsona gehiagok izan zuen mediku-asegurua

Poliza kolektiboak gehitu egin ziren; aitzitik, banako edo familiako polizak eta mutualitate publikoetako polizak gutxitu egin ziren

EUSTATen datuen arabera, 2004. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan 311.148 pertsonak kontratatu zuten osasun-laguntzarako aseguru pribatua, hau da, aurreko urtean baino %1,9 gehiagok. Aseguru kolektiboek eragin dute gehikuntza hori; izan ere, aseguru hauek nabarmen gehitu dira azken sei urteetan (1999-2004) bai aseguratu kopuruari dagokionez (%41,3) eta bai primen kopuruari dagokionez ere (%123,2).

Lurralde historikoka, Bizkaiak jarraitzen du aseguraturako biztanle kopuru handienarekin (%19,6), gero Araba (%12,4) eta azkenik Gipuzkoa (%7,8).

Aseguratuen kopurua poliza motaren arabera, 1999-2004



Iturria: EUSTAT

Banako edo familiako modalitateak izan zuen aseguratutako gehien (%49,9), gero **aseguru kolektiboak** (enpresak edo beste talde zehatz batzuk) %32,5arekin eta azkenik **mutualitate publikoak** (%17,6). Alabaina, aurreko urtearen aldean, aseguru kolektiboetan aseguratutako pertsona kopurua nabarmen gehitu da berriz (%11,4); banako edo familiako modalitatea eta mutualitate publikoetan aseguratutako kopurua, ordea, gutxitu egin da (%-2,1 bakoitzean).

Aseguratu gehienek (%98) oraindik nahiago dituzte **asistentzia orokorra** (lehen mailako arreta, arreta anbulatorioak eta ospitalizatzekoak) estaltzen duten mediku-aseguru pribatuak, arreta zehatzeko beste aseguruak baino (esaterako, hortz-asegurua).

Osasun-laguntzako aseguruaren sektorean, 2004. urtean, guztira 158,5 milioi euroko **primak bildu ziren**, hau da, Estatuko guztirakoaren %4,5 inguru eta Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren %0,3. 2003. urtearen aldean prima kopurua %7,1 gehitu zen; hala ere, hazkunde hori Estatukoa (%9,9) baino txikiagoa izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko **aseguratu bakoitzak batez beste** 510 euro ordaindu zituen; Estatuko aseguratuak (515 euro) baino gutxiago ordaindu zuten. Bestalde, polizaren modalitate batetik bestera ez zen aldaketa handirik eman. Aurreko urtearen aldean, batez besteko prima hori %5,2 gehitu zen; Estatuan, aldiz, %4,6 bakarrik gehitu zen.

Osasun-laguntzako mediku-asegurua duten pertsonen 1.182.157 **mediku-kontsulta** (2003an baino %4,5 gehiago) egin zituzten euren aseguru-entitateen kontura; beraz, aseguratutako bakoitzak batez beste 3,8 bisita egin zizkion medikuari. Traumatologia, tokoginekologia, pediatria eta oftalmologia espezialitateak izan ziren gehien eskatu zirenak; baina aurreko urtearen aldean ehunekoetan gehikuntzarik handienak izan zutenak medikuntza orokorra (%27,2) eta errehabilitazioa (%21,8) izan ziren.

Ospitaleetan emandako arretari dagokionez, mediku-aseguratzaileretatik etorritako gaixoen artean 46.922 **ospitaleratu** egin ziren, 2003. urtean baino %8,6 gehiago. Horien %68,6ari **ebakuntza kirurgikoa** egin zitzaion; hain zuzen, 32.185 ebakuntza egin ziren (aurreko urtean baino %6,4 gehiago). Kirurgia orokorra, traumatologia eta ginekologia espezialitateetan eman ziren ospitaleratze gehienak.

Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen bilakaera

	EAE		
	2004	2003	Δ 04/03
KARTERAREN LABURPENA			
Aseguratu kopurua	311.148	305.356	1,9
Poliza kopurua	162.627	156.418	4,0
Sari kopurua (mila €-tan)	158.519	147.946	7,1
Aseguratu bakoitzeko batez besteko saria (€)	510	485	5,2
MODALITATEAK (aseguratu kopurua)			
Banakoak edo familiakoak	155.153	158.525	-2,1
Kolektiboak	101.119	90.806	11,4
Mutualitate publikoak	54.876	56.025	-2,1
MEDIKUEN ETA OSPITALEETAKO JARDUERA			
Kontsultak (milakoetan)	1.182	1.131	4,5
Ospitaleratutako gaixoak	46.922	43.188	8,6
Ospitaleetan egindako ebakuntza kirurgikoak	32.185	30.244	6,4

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp